



NAHITAEZKOA EZ DEN LEGEZKO IRITZIA, HABEK EGINIKO KONSULTA JURIDIKOARI ERANTZUTEN EMANA

36/ 2020 LGAKZ-LI

I AURREKARI AK

HABEk kontsulta juridikoa egin dio Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari, hain zuzen ere HABEren egiaztatze-prozedurak berrabiarazi eta euskara-maila egiaztatzeko frogen antolaketari buruzkoa.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 8. artikulua 2. puntuak zehazten duenez, legekotasunari buruzko txostena nahitaezkoa ez denean ere, gobernuak, Administrazio Instituzionaleko sailtako eta organismoetako titularrek, sailburuek eta zuzendariak, eta organismo publikoen gobernu-organoen titularrek kontsultak egin ahal izango dizkiote Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari, beren eskumeneko gaiei buruzko edozein zalantza juridiko argitzeko.

Bada, Dekretuan jasotako aurreikuspen hori baliatu du HABEk Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari kontsulta juridikoa helarazteko. Eskerarekin batera, jarraian zehazten dugun dokumentazioa bidali digu:

- HABEko aholkularitza juriidikoko arloburuak izenpetutako txosten juridikoa (gaztelaniaz)
- Ebazpena, 2019ko azaroaren 13koa, HABEren zuzendariarena, HABEren erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2019-2020 ikasturtean ebaluazio jarraituaren harian Helduen



Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOCaren) zein maila egiaztatu ahal izango dituzten ezartzen duena eta 2020ko azterketa-deialdiak egiten dituen (euskaraz)

- Ebazpena, 2019ko azaroaren 18koa, HABEren zuzendariarena, zeinaren bidez 2020. urterako deialdi irekiak egiten baitira, HEOCean zedarritutako B1, B2 eta C2 euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatzeke direnak (euskaraz)
- Ebazpena, 2020ko maiatzaren 13koa, HABEko zuzendariarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak zedarritzen dituen mailak egiaztatzeke, Zuzendaritza Nagusi honen 2019ko azaroaren 13ko eta azaroaren 18ko ebazpenen bidez, nola 2020ko otsailaren 27ko Ebazpenaren bitartez, 2020. urterako abian jarri, eta 2020ko martxoaren 16ko ebazpenez atzeratutako egiaztatze-prozedurak berrabiatzeke, eta matrikulaldia zabaltzeke epeak zedarrituz, ematen dena (euskaraz)
- Ebazpena, 2020ko martxoaren 31koa, HABEko zuzendari nagusiarena, 2020/1 jardunbidea emateke dena, COVID-19aren kutsatzearen ondoriozko hedapenari aurre egiteke aurrez aurreko jarduna etenik egongo den aldiaren indarrean egongo dena (euskaraz)
- Osasun-txostena, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak izenpetutakoa (euskaraz)
- Memoria, HABEren 2020ko egiaztatze-deialdiei buruzkoa (euskaraz)
- XIII. jarraibidea, Prebentzio Zerbitzuarena. Administrazio orokorreko eta erakunde autonomoetako lantokietan COVID 19 aurrean hartu beharreko higie-neurriak airea girotzeko instalazioetan eta iturgintza instalazioetan (2020-05-05) (euskaraz)

- XIV. jarraibidea, Prebentzio Zerbitzuarena. Administrazio orokorreko eta erakunde autonomoetako ibilgailu partikularrak garbitzeko eta erabiltzeko prozedura lantokietan COVID 19 (2020-05-05) (euskaraz)
- HABEko langileen prebentzio-jardunerako prozedura COVID 19ren aurrean, hizkuntza-eskakizunak lortzeko probak garatzean. Prebentzio zerbitzuak argitaratutakoa (euskaraz)
- Administrazio orokorraren eta erakunde autonomoen lan-eremuan eskularruak, maskara, txabusina edo buzoa eta betaurrekoak edo pantaila behar bezala jartzeko irizpideak, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak argitaratua (euskaraz)

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 144/2017 Dekretuaren 8. artikulua 3. puntuak zehazten du egiten diren kontsulta edo eskaera horiei kontsulta edo eskaera egiten duen saileko edo organismoko aholkularitza juridikoaren txostena erantsi beharko zaiela, eta txosten horretan, besteak beste, kontsulta zein den zehaztuko dela, deskribatutako egitateak eta aurrekariak oinarritzat hartuta, eta adieraziko dela, arrazoiak emanda, zein diren aholkularitza behar duten puntuak.

Kasu honetan, txosten juridikoak ez ditu zehazten zein diren aholkularitza behar duten puntuak. Aipamen orokor bat baino ez du egiten alarma-egoeran hartu beharreko segurtasun-neurriei buruz eta, jarraian, adierazten du egoki irizten diola Zerbitzu Juridiko Nagusiari kontsulta egitea, 144/2017 Dekretuaren 8. artikulua 2. puntuan xedatutakoa oinarri hartuta.

Nolanahi ere, espedientearen dokumentazioa eta txostenaren edukia ikusita, kontsultaren azterketa juridikoa egin eta legezko iritzia emango dugu.

II KONTSULTAREN AZTERKETA JURIDIKOA

HABEko aholkularitza juridikoaren txostenak lantzen duen gaia ikusirik, alegia HABEren egiaztatze-prozedurak berrabiarazi eta euskara-maila egiaztatzeko frogen antolaketa, ondoriozta dezakegu egiten diguten kontsulta juridikoa egiaztatze-prozedurak berrabiaraztearen eta ekainaren 12an, 13an, 15ean, 16an, 17an eta 18an Barakaldoko BECen egitekoak diren euskara-maila egiaztatzeko frogen antolaketaren bideragarritasunari buruzkoa dela, bai ikuspegi juridikotik helduta –beren beregi Zerbitzu Juridiko honi aztertzea dagokion auzia- bai osasun-ikuspegitik helduta ere.

Ikuspegi juridikoari gagozkiola, alarma-egoera onetsi zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak esparruka bereizi zituen dekretuak ukitutako jarduerak eta jarduera horiek eteteko eta berrabiarazteko baldintzak, eta dekretuaren eragina jarduera horietara ez ezik horien ekipamenduetara ere hedatu zuen.

Hori horrela izanik, errege dekretu horren ostean etorri direnek etendura- eta berrabiarazte-baldintza banakatuak ezarri dizkiete jarduera-esparru zehatz bakoitzeko jardueri zein ekipamenduei.

Hala, euskara-maila egiaztatzeko HABEk burutzen duen jarduera (29/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzekoa, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC) ezartzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko Aginduaren bidez garatutakoa), 463/2020 Errege Dekretuaren 9. artikuluan zehaztutako hezkuntza eta prestakuntza esparruan sailkatzen da, eta, hortaz, esparru horretako jarduera etenda geratu zen.

Ondoren, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren bidez martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak onetsitako alarma-egoera luzatzea onartu zen, eta luzapen horretan, hezkuntza- eta prestakuntza-esparruan (unibertsitateak kenduta) adostutako neurriak malgutzeko aukera aurreikusi zen.

Horren ondorioz, hezkuntza arloan eskumena duten administrazioek aurrez aurreko hezkuntza jarduerak (ikasgelan) berrabiarazi eta kudeatu ahal izan zituzten, betiere adostutako baldintzetan.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, kudeaketa hori unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko aurrez aurreko jarduerak berriz hastea eta irakaskuntza jakin batzuetan sartzeko azterketak eta probak egitea arautzen duen Hezkuntzako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko maiatzaren 23ko Aginduaren bidez gauzatu da.

HABEren urteroko egiaztatze-deialdiei dagokienez, Agindu horren 8. artikulua xedatzen du azterketa ofizialak deitu, antolatu eta egitea baimentzen dela, horien artean HABEren euskara-maila egiaztatzeko azterketak direla. Eta Aginduaren azken xedapenak zehazten du Agindu horrek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango dituela ondorioak.

Beraz, ikuspegi juridikotik, ez dago inolako eragozpenik 2020ko ekainaren 12 eta 18 bitartean HABEren euskara-maila egiaztatzeko frogak berrabiarazteko.

Osasun-ikuspegiari helduta, berriz, bi hauek izan behar ditugu kontuan: alde batetik, 12/2020 Dekretua, maiatzaren 24koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparrurako ezartzen baitira trantsizio-prozesuaren 2. fasea aplikatzeko Espainiako Gobernuarekin adostutako arauak; eta bestetik, Espainiako Gobernuaren SND/414/2020 Agindua, maiatzaren 16koa, errealitate berri baterako trantsizio planaren 2. fasea aplikatzean alarma-egoera dela-eta ezarritako estatu-mailako hainbat murrizketa malgutzeari buruzkoa.

BECen instalazioetan aplikatu beharreko segurtasun-neurriak zehazteko orduan, HABEren aholkularitza juridikoak igorritako txostenak bereizketa bat egiten du HABEren egiaztatze-deialdien (hezkuntza eta prestakuntza esparruan kokatzen dituenak) eta deialdi horiek gauzatu den eremu fisikoaren artean, alegia Barakaldoko BEC, eta egoki deritzogu bereizketa horri.

Izan ere, Barakaldoko BECaren instalazioen ezaugarriak ez dira ikastetxe bati dagozkionak. Horregatik, nahiz eta bertan burutuko den jarduera (egiaztatze-deialdiak) hezkuntza eta prestakuntza esparruan sartu, instalazioaren egituraketa bera eta haren ezaugarriak hartu beharko ditugu kontuan aplikagarri zaizkion segurtasun-neurriak atontzeko.

Hori horrela izanik, egokia iruditzen zaigu BEC eratzen duten areto, pabilioi nahiz espazio ezberdinak Espainiako Gobernuaren SND/414/2020 Aginduaren 48. artikuluan eginiko sailkapenean sartzea, HABEko aholkularitza juridikoaren txostenak iradoki bezala, alegia biltzar-aretoenean, hitzaldi-aretoenean, mintegienean edo negozio-bilerenean, mota horretako ekitaldiak egiteko xedearekin eraiki baitzen BEC. Hortaz, izaera horretako espazioei dagozkien segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko dira.

Horrenbestez, Espainiako Gobernuaren SND/414/2020 Aginduan jasotako neurriak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan Lehendakariak emandako neurri

bereziak izango zaizkio aplikagarri, hau da, alarma-egoerarengatik ezarritako estatu-mailako hainbat murrizketa malgutzeari buruzko Dekretuak (8/2020 Dekretua, 9/2020 Dekretua eta 12/2020 Dekretua).

Hartara, SND/414/2020 Aginduaren 48. artikulua 2. puntuak zehazten du bi metroko segurtasun-tartea zaindu beharko dela pertsonen artean, eta gehienez ere 50 lagun batu ahal izango direla (2. fasean).

Nolanahi ere, datozen egunetan Euskadiko Autonomia Erkidegoa 3. fasera pasako balitz, zientzia eta berrikuntzaren esparruan 80 laguneko mintegi, kongresu eta azoka zientifiko zein berrikuntzakoak antolatu ahal izango dira, beti ere 2 metroko segurtasun-tartea zainduz eta segurtasun-protokolo guztiak betetzen direla bermatuz.

Esandakoez gain, oso kontuan izan beharko dugu ere Eusko Jaurlaritzaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak emandako txostena, bai egun horietan BECen izango diren langileei dagokienez bai azterketak egitera joango diren ikasleei dagokienez.

Txosten horretan adierazten denez, ikasleek azterketa egunaren aurreko arratsaldean eta azterketaren goizean tenperatura hartu beharko dute eta sukarra badute ez dira azterketara joango.

Jende guztiak, begirale zein ikasle, musukoa eraman beharko du. Bi metroko distantzia gorde beharko dute sarreran, azterketan eta irteeran, pertsona guztien artean zaindu beharrekoa.

Eskuak desinfektatzeko puntu irisgarriak egokituko dira, azterketa egin aurretik iristean erabilgarri izateko.

Komunen garbiketa eta desinfekzioa ziurtartuta egon beharko du eta aretoen aireztapena bideratua egon beharko da.

Horiez gain, Eusko Jaurlaritzaren prebentzio-zerbitzuak emandako XIII. eta XIV. jarraibideetan zehaztutakoari men egin beharko zaie ere bai (administrazio orokorreko eta erakunde autonomoetako ibilgailuak eta/edo ibilgailu partikularrak garbitzeari buruzkoa, eta administrazio orokorreko eta erakunde autonomoetako lantokietan COVID-19 aurrean hartu beharreko higiene neurriei buruzkoa airea girotzeko instalazioetan eta iturgintza instalazioetan).

Gogoan izan beharko da, baita, HABEko langileen prebentzio-jardunerako prozedura Covid-19ren aurrean hizkuntza-eskakizunak lortzeko probak garatzean, Eusko Jaurlaritzaren prebentzio-zerbitzuak prestatutakoa, bai azterketara deitutako pertsonentzat bai proba horietan egongo diren HABEko langileentzat ere.

Esan barik doa BECera garraio publikoan (busez, metroz, tranbiaz, trenez...) hurbilduko diren azterketariak Espainiako Gobernuak ezarritako neurriak bete beharko dituztela garraio publikoetan segurtasun eta higiene neurriak zaintzeari dagokionez:

-TMA/384/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, garraiobide ezberdinetan musukoak erabiltzeko jarraibideak ezartzen dituen eta errealitate berri baterako trantsizioan mugikortasun seguru bat bermatzeko irizpideak zehazten dituen

-SND/422/2020 Agindua, maiatzaren 19koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdian musukoa nahitaez erabiltzeko baldintzak zehazten dituen

III. ONDORIOAK

1.- Ikuspegi juridikotik, bidezkoa dago HABEren euskara-maila egiaztatzeko deialdiak egitea, horretara ahalbidetzen baitu Hezkuntzako sailburuaren eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2020ko maiatzaren 23ko Aginduak.

2.- Iritzi juridiko hau ematen den egunean Euskadiko Autonomia Erkidegoa deseskalada-faseko 2. fasean egonik, HABEren euskara-maila egiaztatzeko deialdiak biltzar-aretoen, hitzaldi-aretoen, mintegien edo negozio-bilerenen sailkapenean sar daiteke, eta hori horrela izanik, SND/414/2020 Aginduaren 48. artikulua 2. puntuan zehazten den bi metroko segurtasun-tartea zaindu beharko da pertsonen artean, eta gehienez ere 50 lagun batu ahal izango dira BECeko areto banandu bakoitzeko.

3.- Nolanahi ere, datozen egunotan Euskadiko Autonomia Erkidegoa 3. fasera pasako balitz (Lehendakariak ekainaren 1ean eskatuko dio Espainiako Gobernuari deseskaladaren 3. fasera igarotzea, ekainaren 8tik aurrera indarrean sartzeko), zientzia eta berrikuntzaren esparruan 80 laguneko mintegi, kongresu eta azoka zientifiko zein berrikuntzakoak antolatu ahal izango ditu, beti ere 2 metroko segurtasun-tartea zainduz eta segurtasun-protokolo guztiak betetzen direla bermatuz.

Hau da ematen dudana legezko iritzia, nahitaezko izaerarik ez duena eta Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen mende jartzen dudana.

Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a.